

BESTELAKO XEDAPENAK

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

5355

AGINDUA, 2022ko azaroaren 24koa, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuarena, zeinaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzen baita Fundación Puerto y Ría de Bilbao / Bilboko Portua eta Itsasadarra Fundazioa izeneko fundazioaren estatutueta zenbait artikulutan egindako aldaketa, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legea egokitzeko egina.

2022ko uztailaren 15ean, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko erregistro telematikoan eskabide bat jaso zen, Fundación Puerto y Ría de Bilbao / Bilboko Portua eta Itsasadarra Fundazioa izeneko fundazioaren estatutueta egindako aldaketa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko.

Eskabidearekin batera, estatutuen aldaketari buruzko eskritura publikoa aurkeztu zen, zeina 2022ko uztailaren 14an egiletsi baitzen, Juan Ignacio Gomeza Villa Bilboko notario jaunaren aurrean (protokolo-zenbakia: 1.499).

Eskritura publiko horrekin batera, Patronatuak 2022ko ekainaren 29an egindako bileraren ziurtagiria aurkeztu zen. Patronatuko idazkari Juan Carlos Verdeal Pinto jaunak egin zuen ziurtagiri hori, lehendakariaren oniritziarekin, 2022ko ekainaren 30ean. Bilera horretan, fundazioaren estatutuak aldatzea erabaki zen, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legea egokitu zitezten, bai eta honako artikulua hauek aldatzea ere: 4. artikulua (helbidea), 6. artikulua (onuradunak), 7. artikulua (jardura- eta funtzionamendu-printzipioak), 15. artikulua (ekonomia- eta kontabilitate-betebeharrak), 17. artikulua (diru-sarreraren eta administrazio-gastuen xedea) eta 30.9 artikulua (erabakia hartzea bilerarik egin gabe).

Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren zerbitzu teknikoek espedienteaztertu dute eta, ondoren, ebazpen-proposamena egin dute.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuak eman behar du, agindu bidez, estatutuak aldatzeko espediente honi buruzko ebazpena, honako arau hauetan xedatutakoarekin bat etorritik: Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzaren eta Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 23ko 115/2019 Dekretuaren 3.1.a) artikulua; Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzeko eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzeko Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuaren 7.1.n) artikulua; eta Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 8/2021 Dekretuaren 3.1 artikulua.

Espedientearekin batera, funtsezkotzat jotzen diren dokumentu eta datu guztiak aurkeztu dira. Horrela, bereziki betetzen dira Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legearen 37. eta 51.2 artikuluetan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzaren eta Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 23ko 115/2019 Dekretuaren 42. artikuluan eskatutako betekizunak. Gainera, estatutueta egindako aldaketak bat datoz aplikatzekoak diren lege eta erregelamenduetan xedatutakoarekin.

Aipatutako manuak eta aplikatzekoak diren gainerako arauak ikusita, hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzea, agindu honen datarekin, Fundación Puerto y Ría de Bilbao / Bilboko Portua eta Itsasadarra Fundazioa izeneko fundazioaren estatutuetan egindako aldaketa, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legera egokitu daitezzen, bai eta artikulu hauen aldaketa ere: 4. artikulua (helbidea), 6. artikulua (onuradunak), 7. artikulua (jarduera- eta funtzionamendu-printzipioak), 15. artikulua (ekonomia- eta kontabilitate-betebeharrak), 17. artikulua (diru-sarreraren eta administrazio-gastuen xedea) eta 30.9 artikulua (erabakia hartzea bilerarik egin gabe). Betiere, 2022ko uztailaren 14an Juan Ignacio Gomeza Villa Bilboko notario jaunaren aurrean egindako eskritura publikoak jasotzen duen patronatuaren erabakia kontuan izan da (protokolo-zenbakia: 1.499).

Inskripzio honen ondoren, fundazioaren helbidea hau izango da: Hedapeneko kaia z.g. (Ugaldebietako sarbidea), Santurtzi.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea eta interesdunei bidaltzea.

AZKEN XEDAPENA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari eta, haren aurka, aukerako berraztertze-errekurtoa aurkez dakioke Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuari, hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko azaroaren 24a.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburua,
OLATZ GARAMENDI LANDA.